

## 1. SARRERA

Lea Artibaiko bideak, hainbat arrazoi direla medi, bat egiten du betidanik eskualdean garatu den bide batekin. Bide hori, bakoitzak bere aldetik bere nortasuna duen hiru/lau bide elkartzearen ondorio da, eta bide horiek elkartu ondoren, Lea Artibaiko eskualdea, berau osatzen duten bi harroak bitan banatzen dituen erdigunetik zeharkatzeaz gain, inguruko jendearen erromesaldiak laburbiltzen ditu.

Ibilbide osoa titulazio publikoak dituen trazatutik doa, bai erregi bideetatik (ANDABIDEAK) bai basoko produktuak ateratzeko prestatu diren mendiko pistetatik. Abereak bazkatzeko lekuak izateagatik itxita dauden lekuetan, hesietan oinezkoentzat dauden pasabideak erabili ditugu.

## 2. IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Lea Artibaiko ibilbidea eskualdeko bi harro nagusien banatze lerrotik doa, hau da, Lea eta Artibai ibaien harroak banatzen dituen lekutik, Lea Artibaiko kostaldetik eskualdeko hegoalderaino, Oiz mendiraino, hain zuzen ere.

Hasiera batean, eta eskualdearen erdigunera, Bedartzandi mendigunera, heldu arte, ibilbideak bi bide izango ditu, bat ekialdetik irtenda (Ondarroatik) eta bestea mendebaldetik irtenda (Lekeitiotik).

Bi bideak Santutxuko baselizan elkartzen dira (Markina-Xemeingo udalerrian) eta bertatik bideak Oiz mendiraino jarraitzen du.

**Mendebaldeko bideak** Lekeitiotik irteten du, Txantantorre tontorreraino, eta bertatik, Amorotoko udalerrian dagoen Bolunburu auzora jaisten da. Leku horretatik, Amorotoko bide zaharra hartuta, hirigunera igotzen da. Odiaga eta Goierri auzoak zeharkatu ondoren, Ekialdeko bidearekin bat egiten duen puntura iristen da, Santutxuko baselizera.

**Ekialdeko bidea** Ondarroan abiatzen da, eta Asterrikatik igotzen du, Kalamendi (322 m) mendiaren ondotik. Bertatik, Merelludi (Milloi) auzotik, berriro ere jaitsi egiten da, Ituiño (402 m) mendiaren hegaletatik, eta puntu horretatik, Mendebaldeko bidearekin elkartu arte jarraitzen du, Goierri auzoan.

Bi adarrek, elkartu ondoren, artez, ereinotzez eta gorostiz osatutako baso itxi batetik jarraitzen dute, Bedartzandi totortxoraino, eta aurrera jarraituz Urregaraiko zelaietara jaisten da. Santa Eufemiako baselizara joateko goiera puntu horretan hasten da.

Urregaraiko zelaietatik Lekoizko mendatera jaisten da, eta bertatik, antzinako harrizko bidea hartuta, Zeinkako lurragaraz, Bolibarrera helduko gara. Bolibartik, erromesen bidea hartuz, Ziortzako Kolegiatara helduko gara.

Kolegiatatik bideak gora egiten du, Kortagurengo zelaietaraino, eta bertatik, Astoagako galtzadara eramaten duen zementuzko bidea hartu beharko dugu, ezkerretan utziz San Kristobal baselizara eramaten duen pista. Bide horretatik hegoalderantz jarraituz Durangaldean sartuko gara, Maumeko ataritik. Badago beste aukera bat ere, Kortaguren baseritik jarraitzea, San Kristobal baselizara doan gorako bidetik, eta bertatik, Oizko bidetik, tontorrera heltzea.

Bideak, guztira, 30 kilometro inguru ditu, eta, atsedetik hartu gabe, 7 ordu beharko ditugu Lekeitiotik irteten bagara eta 9 ordu Ondarroatik irtenez gero. Badago etapa batean baino gehiagotan banatzeko aukera (aurkezten dugun banaketa arbitrarioa da, eta bertan ez ditugu denborak hartzen kontuan, etapa osoak baizik):

Lekeitio-Santutxu  
Ondarroa-Santutxu  
Santutxu-Bolibar  
Bolibar-Ziortza-Astoaga